ETORKINAK ETA EUSKARA: Sakanako esperientzia

Begoña Zestau Baraibar

Sakanako eskualdea Euskal Herriaren erdigunean kokatua dagoen harana da. Nafarroako ipar-mendebaldeko eskualdea da, 15 udalez osatua. Hiru azpi-eskualdetan banatu daitezke Sakanako udalak: Arakil (Irurtzun, Arakil, Irañeta, Uharte Arakil, Lakuntza, Arruazu) Aranatz (Ergoiena, Arbizu, Etxarri Aranatz) eta Burunda (Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia). Eta azpi-eskualde bakoitzean zerbitzu gehienak (osasun zentroak, gizarte zerbitzuak, euskara zerbitzuak...) biltzen dituen gune bat dago: Altsasu (Burundan), Etxarri Aranatz (Aranatzen) eta Irurtzun (Arakilen).

Sakanako udalerriak zenbait zerbitzu eskaintzeko Mankomunitatean bildu dira: ur hornidura, zaborren bilketa, euskararen sustapena, etxeak zaharberritzeko bulegoa, kirol zerbitzua, eta duela oso gutxi immigrazio zerbitzua, etorkinei harrera egoki emanez, Sakanan gizartera daitezen.

20.000 biztanle inguru ditu Sakanak. Horietatik, %7,8 etorkina da. Talderik esanguratsuenak Maroko eta Ekuador aldetik etorritakoena da, Errumania eta Bulgariarren taldeak atzetik dituztelarik.

Immigrazioaren fenomenoa nahiko berria da Sakanan, baina egia da erabateko gorakada egin duen fenomenoa dela. Hala, 1998.urtean etorkinen ehunekoa %0,73koa zen, 2000.urtean %1,69koa eta gaur egun %7,8koa.

Euskara da gaztelaniarekin batera Sakanako hizkuntza. Euskarazko bi komunikabide daude Sakanan: *Guaixe* astekaria, etxeetan banatzen dena, eta Beleixe irratia, Sakana eta inguruko eskualdeei buruzko informazioa egunero ematen duena. Azken urte hauetan, immigrazioa

dela eta, bi hizkuntza hauetaz gain, beste hizkuntza batzuk entzun daitezke Sakanako herrietan zehar: arabiera, errumaniera, bulgariera, wolofera, amazigera…

Sakanako Mankomunitateak beti erakutsi du sentiberatasun berezia Sakanan bizi diren etorkinak bertan integratzeari dagokionez. Hala, asko izan dira bertako euskara zerbitzutik, hasiera batean, eta gaur egun immigrazio zerbitzutik, ildo horretan gauzatu diren egitasmoak.

2005. urtean etorkinek Sakanan bizi zuten egoeraren inguruko inkesta bat burutu zen. *Ongi etorri Sakanara gida* eta *hezkuntza gida* argitaratu ziren ondorengo urteetan hizkuntza ezberdinetan (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, arabiera, errumaniera, eta bulgariera).

Euskarara hurbiltzeko ikastaroak, D ereduaren aldeko matrikulazio kanpainak, etorkinentzako harrera planak…eta abar, etorkinen integraziora begira.

Etorkinak eta euskara binomioan tinko aritzen da Sakanako Mankomunitatea lanean, ezinbestekoa baita ildo horretan aritzea eta are gehiago etorkinen integrazioaz ari bagara.

Hala, asko dira irekitako lan bideak: euskararen berri ematea zenbait etorkini (askok behin hemen daudela ikasten baitute euskara hizkuntza bat dela); hizkuntza gutxiagotua duten etorkinekin identifikazioa, berdintzen gaituenarekiko lotura afektiboak sortzea; ama hizkuntzaren garrantzia lantzea (beraiena den hizkuntzari ez uztea, eta seme-alabei erakutsi ahal izateko bideak irekitzea, erraztea); euskararekiko emozio baikorrak sentituaz berarekiko jarrera baikorrak sustatzeko jarduera ezberdinak antolatzea (euskarara hurbiltzeko ikastaroak helduentzat, aisiari begira euskarazko jarduerak txikienentzat…); argitaratzen den dena hizkuntza ezberdinetan kaleratzea, euskara oinarrizko hizkuntzatzat hartuz, baina beraiena den ama hizkuntzarekiko

errespetua eta jakin-mina adieraziz; kezkatzen dituzten gaien inguruko informazio zehatza eta zuzena helaraztea (seme-alaben matrikulazioari begira egindako kanpainak, gaztelania ikasiko ez duten beldurraren inguruan informazio zuzena zabalduz...)

Aberasgarri ditugun ezberdintasunen gainetik, berdintzen gaituzten ikur kulturaletan (hizkuntza beste askoren artean) indarra jartzea, horrela kulturartekotasuna landuz, hau da, kultura ezberdinetako pertsonen arteko hartu-emana.

Ez da lan erraza, ezta egun batetik bestera lortuko dena ere. Gauza asko baitira kontutan hartu beharrekoak: kanpotik, munduko leku ezberdinetatik Sakanara bizitzera etorri diren auzo berrien premiak eta beharrak; euskararekiko ezagutza edo ezagutza eza, eta berarekiko interesa; gaur egungo krisi ingurunea; lana egiteko aukerak; haranaren zabalera fisikoa; hemendik hara mugitzeko aukerak edo zailtasunak...

Baina koherentziaz jokatuz, beraiena denarekiko benetako interesa adieraziz, enpatia landuz, zinezkoa den hurbiltasuna eskainiz, profesionalen arteko elkarlana landuz, eta beraienganako lehen pausoak sakandarrok emanez, pixkanaka-pixkanaka lortuko dugu -baikortasuna bihotzetan- Sakanara bizitzera etorri diren etorkinen integrazioa, etorkinak eta euskara binomia eskutik hartuta kulturartekotasunaren bidetik pauso txikiak ematen ikustea.

Badago eta Sakanan, hori lortzea posible dela adierazi diguten hainbat eredu.